



## **BASATRIL MENDI LASTERKETAN** **PARTE HARTZEKO ARAUTEGI OFIZIALA**

**0.- ANTOLAKUNTZA:** Zipotza kultur elkarte (G20510962) eta Basatrail mendi lasterketako lantaldea elkarlanean aritu dira Basatrail mendi lasterketa antolatzeko helburuarekin.

**1.- DATA eta LEKUA:** BASATRIL mendi lasterketa 2026ko irailaren 26an ospatuko da, hasiera eta helmuga Astigarragako Foru Plaza izanik.  
Lasterketa luzearen irteera: 9:30etan  
Lasterketa motzeko irteera: 10:00etan

**2.- IBILBIDEA:** Lasterketa honek Santiagomendiko eta Markesbasoko txoko ezegunak ezagutzeko aukera eskainiko du. Parte-hartzaileek bi ibilbide desberdinez gozatzeko aukera izango dute:

- 17 km-ko ibilbidea (760 m-ko desnibela)
- 8 km-ko ibilbidea (430 m-ko desnibela)

**3.- PARTE HARTZAILEAK:** Bi lasterketetan (17 km eta 8 km) 16 urte beteak dituen mendizale, atleta edota kirolarik parte hartu ahal izango du eta gehienez 200 parte hartzaile izango dira. 15 urte beteta izanez gero, guraso edo tutoreen baimena idatziz erakutsi beharko da lasterketan parte hartzeko. Parte hartzaile guztiek araudi hau bete beharko dute.

**4.- KATEGORIAK:** Honela banatuko dira kategoriak Basatrail lasterketan:

- Ibilbide luzea
  - Gizonezko absolutua (TOP 3)
  - Emakumezko absolutua (TOP 3)
  - Lehenengo astigartarrak (emakume eta gizona)
- Ibilbide motza
  - Gizonezko absolutua (TOP 3)
  - Emakumezko absolutua (TOP 3)
  - Lehenengo astigartarrak (emakume eta gizona)

**5. IZEN-EMATEA:** Gehienez, 200 izen-emate izango dira, izen-emate ordena zorrotz jarraituko delarik internetez. Izen ematea KRONOAK orriaren bidez egingo da, 2026ko ekainak 5etik irailaren 25a arte (biak barne), edo izen-emateak amaitu arte. Lasterketaren egunean ez da izen-ematerik onartuko.

**6.- PREZIOA:** Hasiera batean, lasterketa luzean parte hartzeko 25€ izango dira, aldiz lasterketa motzean parte hartzeko 20€. Abuztuak 1etik aurrera lasterketa luzean dortsalaren prezioa 30€-koa izango da eta lasterketa motzekoa 25€-koa. Ordainketa egiteak proban parte hartzea suposatzen du, horrek dituen zerbitzu



guztiak (anoa gunek, osasun-laguntza, lasterketa osteko poltsatxoa, etab) disfrutatu ahal direlarik.

Behin izen ematea burututakoan, baldin eta mediku ziurtagiria aurkezten ez den, ez da atzera bueltarik onartuko.

8.- **SEINALEZTAPENA:** Ibilbidea behar bezala seinaleztatuta egongo da kartel adierazgarri eta ikusgarri diren balizaje zintekin. Horrez gain, bide-gurutzeetan bolondresak egongo dira korrikalariak bidetik atera ez daitezen.

9.- **KONTROLAK:** Lasterketa luzeko ibilaldian zehar 3 kontrol puntu egongo dira eta lasterketa motzeko ibilaldian berriz kontrol puntu bakarra. Kontrol puntu hauetatik igarotzea derrigorrezkoa izango da.

10.- **ANOAGUNEAK:** Lasterketa luzeko ibilbidean zehar 3 anoa gunek solido-likido egongo dira eta lasterketa motzeko ibilbidean berriz anoa gunek solido-likido bat. Hauetaz gain, azkena helmugan egongo da eta bakoitzaren posizioa, mapa eta perfiletan zehaztuta egongo da.

11.- **IGAROBIDE DENBORAK:** Helmugara iristeko gehienezko denbora 3 ordu eta 30 minututakoa da. Denbora hau baino gehiago behar duen parte-hartzailea amaierako sailkapenetik at geratuko da. Edonola ere, antolakuntzako arduradunek korrikalariak probatik baztertzeko ahalmena izango dute ondorengo kasu hauetan:

Igarotze-kontrol ezberdinetan espero den denborak betetzen ez dituztenean, probako arauak hausten dituztenean, ezarritako ibilbideari zehatz-mehatz lotzen ez zaizkionean, erregelamenduzko dortsala ondo ikusteko moduan ez daramatenean, antolatzaileek esandakoari jaramonik egiten ez diotenean edota gainontzeko korrikalarietako kiroltasunez jokatzeko ez dutenean.

Xede hauetarako, probaren amaiera adieraziko duten bi korrikalariren parte-hartzea aurreikusten du antolakuntzak. Baztertua edo kanporatua den parte-hartzaile orok gertuen duen kontrol gunean eman beharko du bere dortsala eta antolatzaileek agindu bezala utzi beharko du proba.

12.- **SARIAK:** Bi lasterketako sariak zehazteke daude.

13.- **DORTSALEN BANAKETA:** Dorsalak Astigarragako Foru Plazan banatuko dira lasterketa egunean bertan, goizeko 08:00etatik 09:00etara. Partaide bakoitzak, bere dortsala jaso ahal izateko norbere NAN originala erakutsi beharko du eta norberak etorri beharko du bila.

14.- **INGURUMENA:** Lasterketa, bere zatirik handienean, balio natural handiko parajeetatik igarotzen da eta, hau horrela izanik, ingurunea ahalik eta gehien zaintzeko eta zaborrak kontrol-guneetatik kanpora ez botatzeko eskatuko zaie parte-hartzaile guztiei. Xede horrekin zabor-ontziak ere ezarriko dira kontrol-



guneetan. Oinarrizko arau hau betetzen ez duen korrikalari oro, probatik kanporatuko du antolakuntzak.

15.- **OSASUN LAGUNTZA:** Antolakuntzak osasun laguntza zerbitzua jarriko du ibilbideko punturik estrategikoenetan eta baita irteera eta helmugan ere.

16.- **SEGURTASUNA:** Segurtasun edo bestelako arrazoietan oinarriturik, antolakuntzak lasterketako ibilbidea aldatu edo ordeztu ibilbidetik desbideratu ahal izango du lasterketa. Eguraldi arrazoiak medio, lasterketa bertan behera uzteko eskubide osoa izango du antolakuntzak.

17.- **LAGUNTZA EZBEHARRETAN:** Parte hartzaileak istripuren baten aurrean laguntza eman eta kontrol lekuetan edozein ezbeharren berri eman beharko du.

18.- **BABES PERTSONALA:** "TRAIL" modalitatean, lasterketa guztian zehar, **lasterkari bakoitzak ZIRA BAT eta norberaren EDALONTZIA eramatea gomendatzen da.**

Eguraldi aurreikuspenak bereziki okerrak badira, antolakuntzak aurretik aipaturiko ziraz gain, manta termiko bat ere gehitu ahal izango du beharrezko material zerrendan (beharrezkoa balitz, inskripzioa betetzeko momentuan adierazitako korreo elektronikoan mezu bidez adieraziko zaizue aurreko egunetan zehar).

Astigarragan, 2026ko maiatzaren 28a  
ZIPOTZA KULTUR ELKARTEA  
**BASATRIL** lantaldea  
basatrail1@gmail.com

Zipotza Kultur Elkarte